

Iritzi artikulu hau

Asteburua Kordoban eman dut. Ene ttakun hau horko bizipenez jostekoa nintzen. Meskitan Adam Zagajewski zegoen, Harkaitz Canoren estiloko topaketa harilkatuko nuke. Atxagaren *Markak* ere eraman dut, Jose Inazioren testuarekin nolabait josteko. Baina Kordoban ez dut deus idatzi, bueltako bidean ere ez dut deus idatzi. Gaur ezin dut deus idatzi.

“Geratu ditzatela erlojuak. Deskonekta ezazue telefonoa. Eman egiozue hezur mamitsu bat txakurrari zaunka egin ez dezan. Pianoak isilarazi, eta atera ezazue hilkutxa danbolin hots isil horrekin. Hurbil daitezen dolu-dunak. Hegazkinek kezuz idatz dezatela honako mezu hau zeruan: hil egin da. Usoen lepo zurietan motots beltzak jar ditzatela. Poliziek eskularru beltzak erabil ditzatela. Bera zen nire iparra eta nire hegoa, nire ekialdea eta mendebala; nire lan astea eta jai eguna; nire eguerdia, nire gauerdia; nire elkarrizketa, nire abestia. Uste nuen maitasunak betiko iraungo zuela. Oker nenbilen. Ez dugu izarrik behar orain... itzal itzazue denak; ilargia estali; eguzkia desarmatu. Ozeanoa urez hustu eta basoa bota. Izan ere, hemendik aurrera ezerk ez du balio izanen.

W. H. Audenen poema baten itzulpena da, hildako amorante bati idatzi ziona sobera ere. Tarteka irakurtzea gustatzen zait. Hamaika aldiz hautsi digutelako bihotza eta ezerk ez duela merezi sentitu dugulako horietan gutzietan, eta, hala ere, pistara ateratzen gara berriz, guztiz osatuta ala zauriak agerian”.

Aurrekoa Castillo Suarezen zutabe bat da, ARGIAN orain hiru aste agertua. Ni ere gogogabeturik nago orain idazten jartzeko; beraz, honatx kopiatuko dizuet Kordobarako bidean egunkari batean Atxagari irakurri diodana:

“Halako batean jabetu nintzen nire poemarik ospetsuena, *Trikuarena*, irakurri eta deseroso sentitzen



JOSU SANTISTEBAN

Angel Erro

Basterretxea

Borda

nintzela. Orduan, gogoeta egin nuen jakiteko non dagoen arazoa. Poema horretan, eta beste askotan, arazoa da poesiak sortu duen barne sistema, non hitz egiteko modu batzuk onartuta eta gozo dauden. Barne sistema horretatik kanpora afektatuak edo gehiegizkoak liratekeen hitz egiteko modu batzuk gozo onartzen dira sistema horretan. Baina hori mas-

kara bat bihurtu da, eta bazterrean utzi da helburu nobleena: errealitatea argitu, gertatzen dena argitu. Ideia horrekin, orain, aspaldiko partez, poemak idazten ari naiz”.

Eztabaida izan dut neure buruarekin Atxaga azala ala mamia aldatzeaz ari den. Kordobako liburu azokan, besteak beste, Atxagaren *Declaración de Guillermo* aurkitu dut, CajaSur-ek editatuta. Hotelean ABC egunkarian Atxagaren poema berri argitaragabe bat leitu dut erdaraz: *Las cebras y la muerte*.

“Ehun eta berrogeita hamar zebra ginen lautada lehorrean korrika eta ni hogeita laua, hogeita bosta eta hogeita seiaren atzean nindoan, hirurogeia eta hirurogeita bataren aurretik, eta bat-batean ehun eta hemezortziak, ehun eta hemeretziak eta ehun eta hogeiak jauzika aurrera hartu ziguten ‘erreka’, ‘erreka’ esanez, eta hogeita bostak ‘erreka’, ‘erreka’ errepikatu zuen eta bat-batean (...) erreka uretan eguzkia ikusi nuen zipriztin dirdiratsuez dirdiratuz, eta zortzia eta bederatzia nire ondotik pasa ziren kontrako norabidean korrika ahoa urez beterik eta hankak bustirik eta bularra bustirik eta ‘aurrera’, ‘aurrera’ esanez, eta bat-batean bosta eta zazpia kontrako norabidean korrika gurutzatu ditut baina ‘krokodiloak’, ‘krokodiloak’ esanez (...)”.

Kordobatik trenean jakin dut amona Rosalía hil zaigula. Oso triste nago. Gaur beilatokian haren ahizpak kontatu digu nobio bat hil ziotela gerran, nire izenekoa, biak Granadatik ihesean zihoazela. ■



Eztabaida izan dut neure buruarekin Atxaga azala ala mamia aldatzeaz ari den. Kordobako liburu azokan, besteak beste, Atxagaren *Declaración de Guillermo* aurkitu dut, CajaSur-ek editatuta. Hotelean ABC egunkarian Atxagaren poema berri argitaragabe bat leitu dut erdaraz: *Las cebras y la muerte*

